


KANALAK

Atal honetan gure enpresaren eta bezeroen arteko harremana zein bide edo kanalen bidez gauzatuko den azalduko dugu. Kanalek aukera ematen dute gure zerbitzua ezagutarazteko, ikastolekin harremanetan jartzeko eta, azkenik, tailerraren garapena bermatzeko. Hiru kanal nagusi bereizten ditugu: harremanetarako komunikazio kanalak, publizitate kanalak eta salmenta eta banaketa kanalak.

Hasteko, gure komunikazio kanal nagusiak posta elektronikoa, telefonoa eta aurrez aurreko bilerak izango dira. Hasierako kontaktua ikastolekin posta elektronikoaren bidez egingo dugu; bertan, gure proiektuaren aurkezpen orokorra bidaliko dugu, zerbitzuaren helburua, edukiak eta ikastolarentzat izan ditzakeen onurak azalduz.



Posta elektronikoaren ondoren, interesik agertzen duten ikastolekin telefono bidez harremanetan jarriko gara, zalantzak argitzeko eta aurrez aurreko bilera bat adosteko. Bilera horietan, ikastolako zuzendaritzari tailerraren antolaketa, iraupena eta baldintza ekonomikoak zehaztuko dizkiogu.

Tailerrak ematerakoan, aurrez aurreko harremana izango da komunikazio kanal nagusia, bai ikasleekin bai irakasleekin. Gure ustez, harreman zuzena ezinbestekoa da konfiantza sortzeko, ikasleen beharretara egokitzeko eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.



Jarraitzeko, gure publizitatea ez da publizitate masiboa izango, bezeroak oso zehatzak direlako. Horregatik, zuzeneko publizitate espezializatua erabiliko dugu. Ikastolako zuzendaritzari aurkezpen formal bat egingo diogu, eta tailerra onartuz gero, DBH 4. mailako ikasleei bideo labur baten bidez azalduko zaie.

Bideo horretan tailerraren eduki praktikokoak, helburuak eta ikasleentzat dituen onurak azalduko dira. Publizitate kanal honek ikasleen interesa piztea eta parte hartzea erraztea du helburu.

Horrez gain, epe luzera, ahoz ahoko publizitatea funtsezko kanal bihurtuko dela uste dugu, izan ere, ikastola batek esperientzia positiboa badu, beste ikastolei gomendatzeko aukera handia dago.

Kanalekin bukatzeko, gure zerbitzuaren salmenta zuzenean ikastolekin egingo da. Tailerraren kontratazioa ikastolako zuzendaritzarekin adostuko da, egutegia eta baldintzak zehaztuz.

Banaketa edo zerbitzuaren eskaintza aurrez aurrekoa izango da; hau da, gure taldea joango da ikastoletara tailerrak ematera. Horrela, zerbitzuaren kontrol zuzena izango dugu, eta kalitate estandar egokiak bermatuko ditugu.